

Indonesiako abentura bukatu aurretik, etxera itzuli beharra

Maddi Amiano altzotarra Indonesiara joan zen urtarrilean Baliako ikastetxe batean sei hilabetez irakasle lanak egitera, baina, koronabirusa tarteko, aste honetan itzuli da Altzora //

«Osasun arretaren alde mobilizatzeko eskatzen dugu»

ARANTXA IRAZUSTA
ALEGIAKO ALKATEA

Osasun arreta publikoa eta euskalduna lortzeko bidean mobilizazio kanpaina jari nahi zuten martxan eskualdeko alkateek, baina, osasun krisia dela eta atzeratu beharra izan dute //

Telefonoetako kargagailuak zaintzeko gomendioak //

Liburuzainek literatur proposamenak egin dituzte //



Iurreamendiko langileek asteak eman dituztela prebentzio materiala eskatzen esan dute. I. TERRADILLOS

Iurreamendiko 15 langilek eman dutela positibo salatu dute

ELA sindikatuak esan duenez, «gehiago ere egon daitezke kutsatuta»; Eusko Jaurlaritza eta Osakidetzaaren protokoloa «guztiz eskasa» zela hasieratik salatu duela adierazi du //



Iurreamendiko 15 langilek positibo eman dute

ELA-k egin du salaketa eta esan du Tolosako adinekoen egoitzako langile gehiago ere kutsatuta egon daitezkeela

Erredakzioa Tolosa

ELA sindikatuaren datuen arabera, martxoaren 18an, 4 erabilitzailek eman zuten positibo COVID 19aren frogetan. Hurrengo egunean, martxoaren 19an, 14 langileri egin zitzaizen frogak, eta horietatik 8k positibo eman zuten. Martxoaren 23an, beste langile talde bat aztertu zuten, eta horietatik 7k positibo eman zuten. Guztira, beraz, 15 langile kontatzen ditu ELAk COVID 19arekin. «Hala ere, askoz gehiago egon daitezke».

Bilakaera eta datu horien aurrean gauzak argi utzi nahi izan dituzte sindikatutik: «Hasieratik salatu dugu Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetzak ateratako protokoloa guztiz eskasa zela. Iurreamendin gertatutakoa ikusita argi gelditu da. Protokolo horren arabera erabiltzaileak sintomak izan arte edo positiboak konfirmatuta egon arte, prebentzio materiala ez da beharrezkoa». Bestalde, asteak eraman omen dituzte delegatuek eta langileek prebentzio materiala eskatzen: «Maskarak, eskularruak, batak eta betaurrekoak, baina langileen positiboak konfirmatu arte ez dira EPIak iritsi».

ELA sindikatutik azaldu duteenez: «Egoitza gehienetan pre-

bentzio materiala falta da ondorioz, langileek maskara bera bererabili behar dute behin eta berriro. Egoera ikusita, egoitza batzuetan langileek euren prebentzio materiala egiten hasi dira, batak eta maskarak josten».

FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren azken datuen arabera, Iurreamendin 10 positibo daude, guztiak egoiliarak. TOLOSALDEKO ATARIA-k ELA-ren informazioa kontrastatu nahi izan du Foru Aldundiarekin, baina ez du erantzunik jaso. Eider Mendoza bozeramaileak asteartean eginiko agerraldian esan zuenez, egoitza guztien jarraipena egiten ari dira: «Jarraipena erabiltzaileei zein langileei egiten zaie, egoitza sarearen egoerari buruzko argazki osoa lortzeko. Eta, aldi berean, zentro bakoitzak dituen ekipo eta material beharrak jasotzen ditugu, eta ahalik eta azkarren ari gara erantzuten».

Olatz Peon Tolosako alkateak, bere aldetik, Iurreamendin «beharrezko neurriak» hartzen ari direla adierazi du: «Garbiketa neurriak hartu dira, frogak egin dira langile eta egoiliarretan, babeserako materiala badago eta egoiliarrekin harremantzeko moduak moldatzen ari dira».

81 positibo zenbatu dituzte eskualdean

Erredakzioa

Eskualdeko bi herri gehiagotan daude positiboak; Bidania-Goiatzen eta Adunan. Guztira 81 koronabirus kasu daude Eusko Jaurlaritzaren azken txostenaren arabera, bezperan baino 18 gehiago.

Asuncion klinikari dagokio-

nez, solairuetan ospitaleratuta 10 pertsona daude, eta sei alta eman dituzte, horietako bi ZIU-n zeuden.

Tolosan 44 positibo daude, Iruran 9, Ibarran 7, Anoeta eta Amasa-Villabonan seina, Altzon eta Bidania-Goitzen bina, eta Adunan, Alegian, Alkizan, Asteasun eta Zizurkilen bana.

Koronabirusak telefono mugikorretako eta tabletetako bateriak gaixotu ditzakeela dio Imanol Landa Medrano ikerlariak, eta kargagailuak egoki erabiltzeko gomendioak eman ditu.

Baterien ajeak



Imanol Landa Medrano
CIDETEC Fundazioko
ikertzailea

Gutxi hitz egin denez koronabirusaren inguruan, nik (ere) gaiari helduko diot. Tamalez, medikuntzan edo biologian nire ezagutza oso mugatua denez, gaiari beste hari batetik tira diot. Ugari izan dira isolamenduari aurre egiteko bultzatutako ekimenak, hauetako asko sare sozialen bidez. Gatozen harira: telefono eta tabletak sutan dauzkagu eta, ondorioz, baterien erabilera handiagoa da. Hurrengo lerroetan bateria hauen bizitza nola luzatu azalduko dizuet, koronabirusaren albo kalteen artean gure telefonoen heriotza zenbatu ez dadin.

Erabili ezazu, ahal dela, telefonoa/tableta erosi zenuenean harekin zetorren kargagailua. Aparte erositako kargagailuen bat gertu izatea ondo dago ezustekorik baduzu, baina ahal den bakoitzean erabili berezkoa. Izan ere, bateria bakoitza baldintza zehatz batzuetan kargatzen da hobekien, eta beste kargagailu baten erabilerak gailua beste kondizio batzuetan kargatzea eragiten du.

EZ UTZI ERABAT DESKARGATZEN

Gutxi eta maiz. Sagardo kupel artean sarritan entzuten den esaldi honek gure gailuen kargak nola egin behar diren gogorarazteko ere balio du. Lehenik eta behin, ez utzi bateria erabat deskargatzen. Saiatu, nola edo ahala, telefonoa edota tableta ez itzaltzea bateriarik gabe geratu delako. Nire telefonoak abisua ematen dit %15-eko bateria geratzen zaionean, eta ziurrenik zuenak ere bai. Edozein kasutan, saiatu muga hau ez gaingitzen. Kargei



Mugikorrak eta tableten kargagailuak zaindu behar dira. ATARIA

dagokionez, ez da beharrezkoa %100era kargatzea. Hartu tarteak kargatzeko ohitura. Eta, arren, ez iezaiozue telefonoa gau osoan zehar kargatzeko ohiturari eutsi. Telefonoa eta kameretako bateria zaharrek forma memoria deritzona zuten, eta karga laburregia eginez gero euren iraupea ere laburtzen zen, hasierako gaitasunera itzuli ezinik. Egungo Li-ion bateriekin hau ez da beharrezkoa.

Karga azkarra behar baduzue, jar ezazue telefonoa hegazkin moduan. Kargatzen duzuen bitartean lanean ari bada energia jaso heinean erabiliko du, eta orokorrean, denbora gehiago beharko du ondo kargatzeko. Horrek, gainera, telefonoa berotzea eragingo du, karga prozesuaz gain, gure bateriarentzat kaltegarriak diren bigarren mailako erreakzioak ahalbidetuz. Honi lotuta, telefonoa/tableta babeskiren batekin bilduta baduzue, atera ezazue bertatik gailua berotzen dela sumatzen baduzue.

Bide batez, saiatu kargatzen ari den bitartean telefono edota tabletari eguzkiak bete-betean eman ez diezaion. Sutondoa ere ez da toki ona kargak egiteko.

Telefonoa eta tableta tarteka itzaltzea komeni da. Ez al zaizue sekula gertatu bateria ehuneko jakin bat duela itzali eta piztean beste ehuneko bat duela ikustea? Gure gailuek bateriaren egoera une oro irakurtzen duten txartel elektronikoko bat daukate. Pixkana, irakurketa eta bateriaren egiazko egoera desfasatu daitezke. Telefonoa/tableta itzaltzean, txartel elektronikoa atsedena ematen diogu; eta, berrabiaraztean, itzali aurretik zuen aztoramena alde batera uzten du, irakurketa eraginkorrago bat egiten du.

Honenbestez, zaindu ezazue zuen telefonoa baina, batez ere, zaindu ezazue zuen burua. Zuengatik ez ezik, gogoratu aldamenekoen osasuna ere zuen ardurapean dagoela. Gera zaitezte etxean, arren!

Irati Saizar Artola

Tolosaldeko osasun publikoaren egoerak kezkatuta, prentsa agerrialdia egin zuten, otsaila erdialdean, Alegia, Amasa-Villabona eta Ibarako alkateek. Mobilizazio kanpaina bat jarri nahi zuten martxan, eta gainerako udalei dei egin zieten prozesuarekin bat egin zezaten. Koronabirusa dela eta, atzeratu egin behar izan dituzte mobilizazio horiek. Arantxa Irazustak (Alegia, 1966) eskatzen ari diren kalitatezko osasun arreta publiko eta euskalduna lortze bidean, eragile eta norbanakoen indarrak batu behar dituztela azaldu du.

Osasun arretaren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela kontuan izanda, zer da udaletatik sustatu nahi duzuen?

Oso arduratuta gaude gure herritarrek jasotzen ari diren osasun arreta dela eta. Fiskaltza homologatu gabeko medikuen afera ikertzen ari da, Asuncion Klinikaren aurkako salaketa jarri duen medikuaren kontra eta 200 osasun langile inguruk beren babesa azaldu diote salatzaileari. Asuncion Klinikaren arreta kalitatea zalantzan jarri dute. Gure herritarrek merezi duten osasun arreta kalitatezkoa, publikoa eta euskalduna izatea alkateon ardura ere badela uste dugu.

Hiru alkateren kezkatik abiatuzarete. Nolakoa babesak jaso duzue orain arte?

31 herrik osatzen dugu osasun eskualdea. Alkate guztiei gure kezka helarazi diegu eta erantzun oso positiboa jasotzen ari gara. Babes zabala jaso du gure proposamenak eta kezka erabat konpartitua dela ikusten ari gara. Oraindik datuak biltzen ari bagara ere, egun, hogeitik gora atxikimendu lotuak ditugu jada.

Tolosaldeko osasun arreta gainerako eskualdeen egoerara parekatzea eskatzen duzue. Zer esan nahi du horrek?

Tolosaldea da 60.000 biztanleekin eskualdeko ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra. Ospitale publikoa izateak, diru irabazien gainetik osasun arreta egotea bermatzen du. Tolosaldeak jasotzen duen diru kopuru berearekin, errentagarritasun ekonomikoa ziurtatu behar dio Asuncion klinika pribatuari. Honek, gure ustez, zerbitzu publikoa bera kolokan jartzen du osasuna bezalako ezinbesteko zerbitzu batean. Horrez gain, inbertsio maila ere baxuagoa da, eta azken aldian jakin dugunez, homologatu gabeko medikuen

«Beste eskualdeen pareko osasun arreta zerbitzua nahi dugu»

ARANTXA IRAZUSTA ALEGIAKO ALKATEA

Hiru alkateren kezkatik abiatuta, eskualdeko eragile zein adituak aintzat hartuko dituen parte hartze prozesu bat abiatu nahi dute, kalitateko osasun arreta publiko eta euskalduna bermatu ahalizateko



ENERITZ MAIZETXARRI

kopurua ere bai. Nola justifikai daiteke, diru gutxiago, inbertsio gutxiago eta mediku espezialista gutxiagorekin beste eskualdeen mailako zerbitzua ematea? Ez da sinesgarria. Ez dugu dagokiguna baino gehiago eskatzen, beste eskualdeen pareko zerbitzua baizik.

Asuncioneko arduradunek, ordea, baieztatu izan dute sistema kontzertatuak kudeaketa publikoaren kalitate bera behintzat bermatzen duela.

Sare publikoak baldintza eta berme batzuk dauzka, gure kasuan, Asuncion Klinikak ez dituenak. Fiskaltzak homologatu gabeko medikuen egoera aztertzen hastean, hedabideen bidez jakin genuen Osasun sailak Asuncion Klinikari langileen zerrenda eskatu ziola. Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenak dio sei hilabetero informazio hau igorri behar duela klinikak edota aldaketaren bat dagoen aldiro. Beraien arteko hitzarmena ere ez

dira betetzen ari, ez dago Jaurlaritzaren inongo kontrolik Asuncion Klinikak ematen duen zerbitzuarekiko. Asuncion Klinikaren ia diru sarrerak guztiak publikoak dira eta ez dauka inongo kontrolik Jaurlaritzak. Jaurlaritzaren arduragabekeria hutsa da Tolosaldeko herritarrei ematen ari zaigun osasun arretaren jarraipen eza. Kalitatezko osasun arreta, euskalduna eta publikoa izan behar du Tolosaldeak ezinbestean.

Homologatu gabeko titulu-dun medikuen inguruko ikerketa zabalik da. Zein irakurketa egiten duzue?

TOPA eragileak aspaldi salatu zuen egoera hori. Alkate bezala, dagokigun gune guztietan, salaketa gure egin dugu eta neurriak hartzeko eskatu. Gure harridurarako ez dugu inongo erantzunik jaso eta mediku batek salatu arte gaia ez da argitara atera. Gure ustez, arazo honek argi eta garbi erakusten du Jaurlaritzak eta Osasun sailak ez duela Asuncion Klinikarekin duen hitzarmena betetzen eta ez diola behar bezalako jarraipenik egiten eskualdeko herritarrok jasotzen dugun zerbitzuari. Gaia sakonki aztertu eta ardurak behar bezala banatzea nahiko genuke. Gure ustez, gure herritarrek beste eskualdeen mailako osasun arreta merezi dute eta horretarako ezinbestekoa da beste eskualdeetan bezala eskualdeko ospitale publiko bat izatea.

Eskualdeen arteko parekatzea bermatzeko, parte hartze prozesu bat abiarazi behar dela aldarrikatu duzue.

Aspalditik dator Tolosaldea eta osasun arretaren eztabaida. Afera honek ertz asko ditu eta azken erabakiak adostua behar duela izan uste dugu, ertz guzti horiei erantzungo dien erabakia. Bertan, gizarte eragileak, udalak eta

sindikatuak egotea ezinbestekoa ikusten dugu, Jaurlaritzako arduradunez gain. Bertan, eskualdeko osasun beharrak aztertzeko diagnostiko oso bat egin beharko litzateke adostasunez. 30 urtez egon den gatazka bat ezin da aldebakarreko erabaki batekin konpondu. Norbaitek uste du ospitale publiko batekin baina Asuncion klinikako langileei irtenbiderik eman gabe egon daitekeela behin betiko konponbiderik? Gatazka luzea da eta denon adostasuna ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

Prozesuan aditu taldeak eta gizarte eragileak elkarlanean aritzea irudikatu duzue. Nor-tzukarrituko zarete?

Lehen aipatutako mahai horren osaketa ere adostasunez egin beharko da. Hala ere, ezinbestekotzat jotzen dugu TOPA, sindikatuak, Asuncion Klinikako langileak, udalak eta Jaurlaritzak

Herri aktibazioan dago gakoa; herritarrei bere osasun arretaren alde mobilizatzeko eskatu nahi diegu

parte hartzea. Honetaz gain, interesa duen gizarte eragile orok parte hartzeko aukera izan beharko lukeela uste dugu.

Eta osasun arretaren eredu prozesu horretan zehaztu nahi duzue?

Jakitun gara proiektu eta irtenbide ezberdinak daudela mahai gainean. Hala ere, ziur gaude helburuan denok ados gaudela. Denok nahi dugu Tolosaldeko herritarrontzat kalitatezko osasun arreta. Eta ez dugu inongo zalantzarik horretarako ospitaleak publikoa behar duela izan. Hortik aurrera mahai horretan adostu beharko da zein den erarik egokiena hori bermatzeko.

Aurrera begira zein da zuen asmoa?

Giro nahasia dugu azken egunotan koronabirusa dela eta. Hala ere, herri aktibazioan dago gakoa eta gure herritarrei bere osasun arretaren alde mobilizatzeko eskatu nahi diegu. Ekimen batzuk baditugu buruan udaberirik aurrera egiteko, baina egoera argitu arte zuhurtziaz jokatu dugu eta ez dugu aurrerapausorik emango.

Ziur gaude, herritar, eragile sozial eta hautetsion batasunak bakarrik ziurta dezakeela eskualde honetako herritarrek merezi duten kalitatezko osasun arreta, euskalduna eta publikoa bermatzea.

Urtarrilean joan zen Indonesiara irakasle lanak egitera Maddi Amiano altzotarra, baina koronabirusa tarteko, eta kostata bada ere, bidaiaren erdian etxera itzuli behar izan du.

«Inork ez dit kentzen bizitakoa»

Eneritz Maiz Etxarri Altzo

Martxoaren 15ean jaso zuten Indonesian etxeratzeko agindua, baina zailtasunez betetako astea bizitu behar izan du Maddi Amiano Allue altzotarrak, beste hainbatekin batera. Astelehenean iritsi zen Altzora.

«Igandean izan genuen hegaldiak behar bezala egin zuen bidaia. Denpasaretik (Indonesia) Dohara, eta Dohatik Madrilera. Jarraian tren bat hartu genuen Euskal Herrira iristeko», kontatu du Amianok. «Ez dugu laguntzarik izan. Geure kabuz mugitu gara, eta gure egoera berean zegoen jendearekin hitz egitea izan da laguntzarik onena. Egoera ezezagun honetan bidea den artean aurkitzea bezalakorik ez dago eta», gaineratu du. Eta gogoan ditu oraindik: «ez dut ahazterik nahi, guk bueltatzeko aukera izan dugun moduan, jende asko dagoela oraindik ere etortzeko saiakera egin eta ezinean. Egoera horrek erantzularen bat izan behar du...».

Indonesiako nazioarteko eskola batean irakasle aritu da 27 urteko altzotarra. Indonesiara urtarrilean iritsi zen, eta printzipioz sei hilabeteko egonaldia egiteko intentzioarekin joana zen, curriculum internazionala duen Baliako ikastetxe batean irakasle moduan aritzeko, hain zuzen ere. «Espainiako enbaxadak etxera bueltatzeko agindua eman zigun Espainian bertan alarma piztu zen lehen momentutik. Ofizialki guretzat martxoaren 15ean izan zen», dio.

Azken egunak oso luzeak izan dira Amianorentzat, «momentu guztian informazio berriaren menpe geunden. Inork ez zigun ezer ziurtatzen. Ez Eusko Jaurlaritzak, ez Espainiako enbaxadak eta are gutxiago hegaldi konpainiek. Han gelditzeko aukera ere planteatu genuen, baina aurreikuspenek diote Indonesian okerrera iristear dagoela». Maiatzean eguneko 4.000 infektatu espero dituzte. «Aurreikuspenak dio egoera hilabete barru larriagotuko dela. Indonesiako gobernuak onartu du baliabide nahikoa ez duen herrialdea dela horrelako pandemia bati aurre egin



Indonesiako Bali uharterako ilunabarra da; bertan pasa ditu ia hiru hilabete altzotarrak. MADDI AMIANO



Oparotasuna, osasuna eta janaria eskatzeko hinduisten ofrenda. M. AMIANO

ahal izateko. Eta noski, populazio altua izateak eta populazioa irla ezberdinetan bananduta egoteak baliabideak iristeko aukera mugatzen du», jarraitzen du.

Bertakoez galdetuta, «pixkana jendartea geroz eta gehiago larritzen» hasi dela dio. «Koronabirusaren aurrean jendea kezkatzen hasi da, baina oraindik ez dituzte higie eta segurtasun neurri eraginkorrak martxan jarri, gobernuak ez baitu momentuz egoera larritzat hartu. Ni bizi nintzen uhartean adibidez, (Bali) irabazien %80 turismotik dator, eta honen eraginez, lana galtzeko aukerez kezkatutik daude asko».

Okerrena iristear dagoenaren

aurreikuspenek jartzen dituela urduri herritarrak adierazi du Amianok: «Ikastetxeak itxita daude, pixkanaka komertzio ezberdinek ateak itxi dituzte eta Indonesiako irlen arteko joan-etorria debekatuta dago. Baina, herrialdeak dituen ospitale gutxietan ohe kopurua betetzen hasi da».

ESPERIENTZIA ZORAGARRIA

Gustura hartu du Altzoko etxea. «Bueltan etxean egon beharko genuela bagenekien, eta aurretik izan dugun aste gorabeheratsuekin lehen egunak behintzat gaizki ez datozkigu». Aho zapore onarekin itzuli da: «Zorionez, Indonesian oraindik egoera erabat larria ez denean egin dugu buel-

ta. Horrek eragin du, herrialdearekiko oroitzapen paregabearekin bueltatzea eta bizitako esperientziarekiko oso pozik egotea».

Hona iristean berri, «esperotako egoera» ikusi du. Indonesiatik bertatik, komunikabideen, familiaren edota lagunaren bitartez informazio ugari jaso dugu. Eta horrek ere bultzatu gintuen hona bueltatzera. Hori bai, bagenekien kaleak hutsak aurkituko genituela, baina ikusteak beste inpresio bat ematen du».

Gustura dago bizi izan duenarekin, eta pribilegiatua sentitzen da Asian pasatako hiru hilabeteengatik. «Gazi gozoa azken astea baino ez da izan. Egia da, herrialdean egokitzen hasiak ginela, eta txoko kuttunak eta jende interesgarria ezagutu bezain laster buelta egitea suertatu zaigula. Baina hori, bizitakoa ez digu inork kentzen».

Nahiz eta bidaiaren erdian etxera itzuli beharra suertatu, «esperientzia zoragarria» izan dela argi du. «Indonesia oso herrialde aberatsa da arlo kulturean. Paisaia eta naturaz gozatzeko aukera paregabeak ditu eta jendea oso atsegin da», dio gazteak. Eta «itxaropentsu» gehitzen du: «Suertatu zaigun egoerari, familia eta lagunengandik gertuago egotea lehenetsi badugu ere, ez dugu baztertzeko etorkizunaren bisitaren bat egitera bueltatzea».

GUTUNA

Errespetua eta elkarriketa

Gutun hau sinatzen dugunok, Enirio Aralarko Mankomunitateko zortzi ordezkariak eta eskualdeko EH Bilduko zinegotziok, azken gertakarien inguruko gogoeta plazaratu eta aurrera begira ikusten ditugun erronken nondik norakok azaldu nahi genituzke.

Hainbat eremutan ikusi ahal izan ditugu aurreko legealdian izandako gertakarien eta hartutako erabakien ondorioak, herrietako bizikidetzan sortu diren ezinikutsiekin hasi eta erakunde ezberdinetako zalaparta politikoaekin amaituz, epaimahaietan amaitu duten salaketak barne. Legealdi honen hasieran, nabaria izan da aipatutako ondorio horien arrastoa, eta gaiaren inguruan dagoen tentsioak asko zaildu du eragile eta ardura-dunon arteko elkarriketa modu sano eta eraikitzaileen garatzea.

Egindako akatsetatik ikastea dagokigu guztioi, eta legegintzaldi hau elkarriketarena eta adostasunarena izatea da helburua. Horretarako, gure esku dagoen guztia egiteko prestutasuna agertzen dugu, borondate honen adibide izan delarik mankomunitateko azken batzarrean hartutako erabakia, epaituen defentsa gastuak aurreratzeari, hain zuzen.

Ika-mika eta zalapartatik atera eta aurrera begirako erronkez hitz egitea dagokigu. Aralarko Parke Naturala guztion altxorra da, eta erabilera nahiz helburu desberdinen arteko oreka lortzea da esku artean dugun erronka. Elkarbizitza iraunkor baterako arauak eta ekin-tzak adostu behar dira, erdigunean jarrita ondare eta baliabide natural, kultural nahiz historikoen babes, lehen sektorearen etorkizuna bermatzeko neurriak eta aisialdi nahiz irabazi asmorik gabeko erabilera.

Babes, neurri eta erabilera horiek adosteko, gure iritziz ezinbestekoa da elkarriketa oinarri hartzea eta iritziz desberdinekiko errespetua izatea, eta modu horretara lan egingo dugu. Hurrengo asteetan, proposamenak egingo ditugu elkarlana zehaztu eta aurrerapausoak emateko. Ildo horretan, dei egiten diegu gainerako erakunde nahiz eragileei, elkarlanerako luzatutako eskuari heldu eta arduraz erantzuteko. Mezu baikor batekin amaitu nahi dugu. Ondorengo belaunaldiak Aralarren bizi, lan egin, ibili eta gozatu dezatela nahi dugu, eta iruditzen zaigu herrietan orokorra dela sentimendu hori. Kontentzitate gaude guztion ekarpen eta laguntzarekin lortuko dugula.

Adur Ezenarro eta beste bederatzi.

E	A	N	O	R	A	K	A	N
B	L	U	S	A	Z	A	B	K
Y	K	R	T	U	L	M	E	J
O	O	G	J	H	B	I	R	E
C	N	X	N	H	N	S	O	R
U	D	R	T	T	D	E	K	T
J	A	K	A	G	U	T	I	S
S	R	H	B	N	J	A	O	E
G	A	L	T	Z	A	K	G	A

ALKONDARA
GALTZAK
GONA
ANORAK
JAKA

JERTSEA
BEROKI
KAMISETA
BLUSA

				9	1	4		
			7					
5		3			4	9		
7		4					5	
9				2				1
	2					6		4
		6	3			5		7
				7	6			
		7	8	1				



Eskualdeko liburutegietako ateak itxita daude baina liburuzainek lanean jarraitzen dute; Irakurzaletasuna, sormena eta kultura bultzatzeko lanean dihardute, orain, sare sozialetan

Konfinatuta ere, kultura eskura

Jon Miranda

Joan den martxoaren 13tik itxita dago Aiztondoko Plazida Otaño liburutegia osasun larrialdiagatik; Ostiralean, martxoaren 21ean ospatu zen Poesiaren nazioarteko egunerako prestatutako materiala, egunotan ikusgai da liburutegiko erakusleihoan. «Aurrez aurre elkarrekin egoteko aukerarik ez dugunez izango, erakusleihoan ditugun idatzizko poesiak zein poesia bisualak konpartituko ditugu zuekin», esan dute Arantxa Zabala eta Irene Urruzola liburuzainek.

Liburutegiaren ateak itxita dauden arren, egunero ordu batzuk ematen dituzte Zabalak eta Urruzolak «barruko» lanak egiten: liburuei alta ematen, xahupena egiten, aleak forratzen... Bide batez, Motxila Ibiltaria ekimenaren barruan azkeneko hila-beteetan familiei agindu dieten misioa zabaltzen ari dira sare sozialetan: «Aukeratu bi xomorro eta nahastu bere ezaugarriak, zein bere izenak, eta sortu xomorro berriak». Dagoeneko iritsi zaizkie lehenengoak: pinpilingorri, txinarra edota tximelipurdia.

Zizurkilgo Gaztezulok ere ateak itxi behar izan ditu alarma-egoerari behar bezala erantzuteko, baina ez du bere jarduna eten, eta gogotsu dabil herriko gazteei proposamenak bidaltzen, etxeko egonaldia samurtzeko asmotan. Horretarako, aste osoko programazioa antolatu eta egunero-egunero partekatzen dute sare sozialen bidez.



Zabala eta Urruzola liburuzainak, Plazida Otaño liburutegiko atarian. J.M.

Atzo, adibidez, *Hiru marran* joakoa egiteko behar den materiala zintzilikatu eta gazteek egindako lanen emaitzak jaso zituzten bueltan. Gazteak elkarren artean harremanetan jartzeko, eta hezkuntza ez-formala eta aisiaren bidez, «tarte atsegin bat pasatzera gonbidatzeko», jarri dute martxan ekimena Gaztezuloko arduradunek.

SORMENARI ERAGITEKO SAIOA

Sare sozialak baliatu ditu baita ere Nora Urbizu Larraulgo liburuzainak herritarrei gomendioak luzatzeko. *Konfinamenduari, kultura eskura!* lelopean liburu, antzerki, filma, kantu eta hitzaldien proposamenak luzatzen

ditu Urbizuk, «egunean gomendio bat baino gehiago».

Horrekin batera, *Berrogeialdiaren kultur kronika* ekimena ere jarri dute martxan Larraulgo liburutegitik. Herritarrei zuzendutako ekimena izango da eta berrogeialdi honetan etxean edo etxetik ateratako argazkiari kronika, ipuin laburra, bertsoa, koplado olerkia eranstea proposatzen dute. Lanak datorren apirilaren 20ra bitartean bidali ahal izango dira kultura@larraul.eus helbidera.

«Haur eta helduentzat, bakar-kak nola familian egiteko proposamena da. Egunerokotasuna oinarri duena, baina kultur sorkuntzaren begiradatik. Ez du

lehia formatua, elkarbanatu, partekatu eta hau guztia amaitzean ospatzekoa baizik», esan du Urbizuk. Dagoeneko hasi dira lehen lanak jasotzen eta «pozik» daude antolatzaileak erantzunarekin. Parte hartzaileen artean opariak zozkatuko dituzte eta lanak ikusgai jarriko dira herriko plazan, «normaltasunean sartu bezain pronto, festa giroan egingo dugun ekitaldi batean».

E-LIBURUTEGIAI MARTXAN

Telelanean ari da, baita ere, Edurne Martinez Anoetako liburuzaina. Liburuen gomendioak luzatzen ditu sare sozialetan eta Erandioko liburutegiak luzatu duen erronkari heltzeko gonbita egin die anoetarrei: «Irakurtzen ari diren liburuari, norberaren galtzerdiekin batera argazkia ateratzea da erronka eta gero *#galtzerdietanirakurtzen* traola erabiltzea, Anoetako udal liburutegiari lotura eginda».

Martinezek gogoratu du eLiburutegia martxan dela. «Internet bidez liburu elektronikoak eta filmak eta ikus-entzunezkoak mailegatzeko zerbitzua da, Eusko Jaurlaritzak sortu, mantendu eta herritarren esku jartzen duena. Bertan 20.000 liburu eta 15.000 film daude eskuragarri, baita audio-liburuak ere». Pasahitza ez duenak, norbere liburutegian eska dezake, adibidez, liburutegi@anoeta.eus helbidean. Bide batez, dagoeneko liburutegietan hartutako funtsen mailegua, maiatzaren 4ra arte luzatzen dela aipatu du Anoetako liburuzainak.

Udaleku irekietarako begiraleak behar dituzte Aiztondon

Aduna, Alkiza eta Larraulgo umeentzat antolatuko dira udalekuak eta bertan aritzeko begiraleak behar dira

Erredakzioa

Urtero legeez, Aduna, Alkiza eta Larraulgo udalek herriko haur eta gaztetxoentzako udalekuak antolatzeko lanean ari dira. Udalekuak ekainaren 22tik uztailaren 17ra arte egingo dira eta begirale izan nahi dutenek, martxoa 29ra arte eman dezakete izena Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean.

Begirale izateko, nahitaezkoa izango da 18 urte beteta edukitzea, DBH tituluaren jabe izatea, euskara ulertu eta ongi hitz egitea eta elkarriketa eta talde dinamika gainditzea. Curriculumak eta bertan adierazitako datuak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira izena ematerakoan. Aisialdiko zuzendari titulua, aisialdi begirale titulua, ikasketak, prestakuntza ikastaroak, EGA eta lan esperientzia izatea baloratuko dituzte hautagaiak aukeratzeko orduan. Begiraleei elkarriketak, datorren apirilaren 3an egingo zaizkie Aduan.

Parte hartzeko interesa dutenek eskatutako dokumentazioa aterpeak@urtxintxa.eus helbidera bidali beharko dute, Aiztondoko Udalekuak izenpean. Deialdiari buruzko xehetasun gehiago Aduna, Alkiza eta Larraulgo udaletxeetako web orrietan izango dute interesatuta dauden herritarrek.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Gorka Lizaso billabonatarren proiektua da 'Sin mala intencion'. IKER GUTIERREZ

«Disko berrian kantu bakoitzari buelta gehiago eman dizkiot»

GORKA LIZASO 'SIN MALA INTENCION' TALDEKO BURUA

Maiatzean argitaratu asmo duen 'Cuando llueve demasiado' bigarren diskoko 'Punto y seguido' aurrerapen kantua aurkeztu du taldeak; 11 kantuz osatutako lana izango da.

Jon Miranda Amasa-Villabona

Martxoaren 13an, osasun larrialdian sartu aurreko egunetan aurkeztu zuen Gorka Lizaso (Villabona, 1985) buru duen taldeak *Punto y seguido* kantua. Entzungai dago abestia eta ikusgai bideoklipa, plataforma ezberdinetan.

Itxialdia ondo daramazu?

Bai. Etxean nago, lasai-lasai. Beti atzeratzen dituzun lanak egiteko baliatu dut denbora hau. Ondo etorri zait.

Zuek ez zarete ari, orain, zuzenekoak eskaintzen. Zuen sektoreko beste musikari askori eragin diegoerak, hala ere.

Bai. Maiatza aldera aterako dugu diskoa eta lehenengo kontzertuak lotzen ari ginen ekainerako. Orain ez dakigu zer gertatuko den. Egia da gure kasuan ez gabiltzala orain kontzertuetan, baina musikarientzat, oro har, galera handia izan da. Emanaldi asko bertan behera geratu dira, jaialdi asko ere bai. Gure kolektiboa nahikoa prekariora da.

2016 urte bukaeran kaleratu zenuten zuen lehen lan luzea, 'Esas cosas' izenekoa. Zein ibilbide izan du diskoak?

2017ko martxoan hasi ginen emandiek eta ia bi urteko bira egin dugu. 27 kontzertu eman eta bi bideoklip grabatu genituen. Orokorrean pozik gaude emaitzarekin. Inoiz jo gabeko tokietan jo genuen eta musikari berriak ezagutu genituen. Oso esperientzia ona izan da.

Zein zirkuitutan mugitu zarete aurreko diskoarekin?

Batez ere areto txikietan eta tabernetan ibili gara akustikoak eskaintzen. Hori da gure habitat naturala: areto txiki eta ertainak.

Zure proiektu musikala da 'Sin mala intencion', baina zuzenekoetarako eta grabazioetarako ez zara bakarrik aritzen.

Nire proiektua da bai, eta abestiak nireak dira, baina beti nago musikariz inguratuta. Disko berrirako, adibidez, alboan izan ditut Andoni Garcia gitarrarekin, Maria Sorazu baxuarekin eta Ibai Ros bate-

riarekin. Zuzenekotan lagunduko naute hirurek baina beste musikari gehiago ere batuko dira. Aurreko birako musikariak izango dira nagusiki, Jabi Etxarri eta Iker Gutierrez gitarrekin ariko dira Maria Sorazu baxuan eta aldaketa txiki bat egongo da bira berrian: Ibai Ros ariko da baterian eta Santi Roman teklatuan. Eta noski, ni neu, gitarra eta ahotsarekin.

Noiz egin dituzue disko grabatzeko lanak?

Talde profesionala ez garenez, denbora hartu dugu grabaziorako. Iazko apirilean hasi eta uztailean amaitu genuen Oiartzungo Lezoti grabazio estudioan Gorka Urria teknikariarekin. Beñat Igerabide adunarrak nahastu du.

Zein nobedade dakar disko berriak?

11 kantu dira guztira, hamar nik sortutakoak eta Joaquín Sabina-ren kantu baten bertsioa da bestea. Nobedadea da abestietako bat euskaraz sortu dudala. Taldearen hizkuntza gaztelania izan da baina keinu bat egin nahi izan diogu euskarari eta oso kontentut nago abestiarekin. Disko berrian kantu bakoitzari buelta gehiago eman dizkiot eta *Esas cosas* lanean hartutako lizentzia batzuk ez dizkiot neure buruari onartu. Azentuen tratamendua, adibidez, edota metrika zehatzagoa da lan honetan. Uste dut rockeroagoa atera dela, neurri batean, konposatze prozesuan musikariek egindako lanak kutsatu egin ninduelako. Kantu lasaiagoak badaude, baina rock puntua dute guztiek.

Kantuen hitzetan zer konturen inguruan aritu nahi izan duzu?

Nire buruaz aritu naiz gehienbat. Badaude gai sozialagoak ere, eta kantu batean, adibidez, immigrazioaz hitz egin nahi izan dut. Mundua nola ikusten dudana azaldu nahi izan dut kantuetan.

Aurrerapen kantua zer esan dezakezu?

Punto y seguido da diskoa zabalitzen duen kantua. Nire buruaz hitz egin eta atzera begira jarri nahi izan dut kantu honetan. Bideoklipa ere badakar kantua, YouTubean dago ikusgai. Bi zatitan dago grabatuta, Durangoko taberna batean eta Donostiako Gros eta Zurriola aldean. Raul Quircek zuzendu du bideoklipa. **Noiz aurkeztuko duzu diskoa?** Maiatzean kaleratu nahi genuke. Orain martxoan *Punto y seguido* singlea atera dugu eta apirilean beste aurrerapen kantu bat ateratzeko asmoa genuen, gero maiatzean disko osoa aurkezteko. Osasun egoerak baimentzen badu, data horiei eutsiko diegu.

111 Akademiaren Sarirako hautagaien artean dago Atxaga

Erredakzioa Asteasu

Bernardo Atxagaren azkeneko nobela, *Etxeak eta hilobiak*, bigarren bozketa txandara igaro diren bost lanen artean dago. Martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dute akademiakideek horietako baten aldeko botoa.

2019. urteko 111 Akademiaren Saria erabaki ahal izateko 111 Akademiak amaitu du bere lehenengo bozketa txanda, otsailaren hasieran martxan jarri eta martxoaren 5era arte zabalik eduki duena. Lehenengo bozketa txanda horretan botorik gehien jaso duten obrak ondokoak izan dira: Uxue Alberdiren *Kontrako eztarritik*; Amets Arzallusen eta Ibrahim Balderen *Miñan*; Bernardo Atxagaren *Etxeak eta hilobiak*; Itxaro Bor-

daren *Susmaezinak*; Eta Karmele Jaioren *Aitaren etxea*.

Martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dute akademiakideek horietako baten aldeko botoa. Bigarren buelta horretan libururen batek jasotako botoen %40a bereganatuko balu, 111 Akademiak huraxe izendatuko luke 2019ko saridun. Kopuru horretara iristen den lanik ez balego, berriaz, bi bozkatuenak finale-ra pasako liriteke.

Lehenengo bozketa txandan 95 akademiakidek eman dute botoa. Urtero bezala, bigarren eta, halakorik balego, hirugarren txandetan kopuru horrek gora egitea espero dute. Akademiak, apirilaren azkenean emango du ezagutzera 2019ko 111 Akademiaren Saria eta non izango den sari banaketa ekitaldia.



'BIXEXTO' BANATUTA

Iker Urruzola Zizurkilgo alkatea 'Bixexto' ekimenean sari-dun suertatutako bigarren lagunari banatu zion saskia joan den martxoaren 12an. Irurako Naroa Cruzentzat izan da herriko saltokiek prestatu duten saskia. AINHOA AROZENA / AIURRI

Koronabirusak sortutako Alarma Egoeraren aurrean 'Tolosaldeko Ataria'-k informazioa ematen jarraituko du.

'Ataria'-rekin kontaktuan jarraitzeko ondorengo hiru bide hauek daude:

Telefono zenbakia: 943 65 56 95

Whatsap: 687 410 032

Emaila: ataria@ataria.eus

**Bulegoan ez da aurrez aurreko bisitarik onartuko.*



OSTEGUNA, 2020KO MARTXOAK 26
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 26

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Larramendi, 6 behe 1. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro motela eta nahiko hotza. Goizean zerua estalita egongo da eta tarteka euri zaparradaxka batzuk botako ditu. Eguerditik aurrera atertu eta arratsaldean ostarte batzuk irekiko

dira. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperatura maximoek nabarmen behera egingo dute, eguneko erdiko orduetan 9-11 graduan joz goia.



Bihar. Giro eguzkitsua baina freskoa. Ekialdeko haizeak zerua garbi mantenduko du egun osoz, nahiz eta, momenturen batean hodeixkaren bat ikusi. Goiz hotz baten ostean, eguneko erdiko orduetan tenperaturek zertxobait gora egingo dute. Hala ere, giro nahiko freskoa geratuko zaigu. Tenperatura maximoak 12-14 graduan geratuko dira.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Aratz!

10 urte. Urtebetetze berezia aurtengoa, 2 aldiz ospatuko dugu aurten!

‘Ahoz Aho Ipuinak ez dira geldituko’ ekimenaren barruan, May Gorostiaga tolosarrak idatzitako ipuina da gaurkoa.

Boomeranga

Neska gazte aborigena zuhaitzera igo eta adar batean eseri zen egindako obra goitik behatzeko.

Aurpegi irribarretsua marraztua zuen lur lehorrean eta adarretik ondo antzematen zen begitatz xeheki jarritako harri gorri pare, sudurrerako landare siku arraro hura eta V letra forma zuen makila ahoa irudikatzen zuena.

Zuhaitzaren adarrean bere artelana begitatzten ari zen neska-ri erreparatu gabe, mutiko gazte aborigena heldu eta lurrean marraztutako aurpegi irribarretsua erraldoira gerturatzen da.

Giza aurpegiak ohartzean bere beldur sakonenak azaleratu egiten dira eta bere amorrazio suntsitzailea kanporatzen du gazteak: Sudurreko landare arraroa esku tartean hartu eta ahalik eta urrutien egotzi du, ondoren, bata bestearen atzetik, begiak osatzen zituzten harri gorriak ere hegaka ateratzen dira hainbat metro.

Neskaren begiak gorritu egiten dira...

Mutilak aurpegi irribarretsua kezkarri hura guztiz desagerarazteko, V itxura zuen makil magiko hura hartu eta ahalik eta bortizkien jaurtitzten du, eta harrituta gelditzen da bere oinetara nola bueltatzen den, segundo batzuk barru, egiaztatzerakoan.

Eta oraindik ere neskaren behaketaz konturatu gabe, mutilak



Australiako indigenek ehizerako erabiltzen dute boomeranga. ATARIA

berriro botatzen du makil magikoa eta oraingo honetan belauna kolpatzen dio abiapuntura bueltatzerakoan.

Mutikoak hainbatetan jaurtitzten du makila, geroz eta zakarrago, bere amorrazioa handitzen doan heinean kolpea ere tainan doala jabetzen den bitartean.

Jainkoen zigorraren beldur da orain gure gaztea giza itxurako arpegia txikitzeagatik. Horrela sudurraren moduan zegoen landare arraroa berriz jartzen du, baita harri gorriak begiak osatuz eta makila magikoa irribarrean.

Neska gazteak barre egiten du bere adarretik.

Mutilak begiratzen du. Hasieran ez du ezer ulertzen baina artelanaren egilea nor den sumatu

ondoren irribarre egiten du baita ere.

Nesak dio: «Boomerang ize-nadut».

Mutikoak zuhaitzera igotzea erabakitzen du eta adarrean elkarrekin eserita irribarretsua gertatzen dira artelana begiratzu.

Egun, guztiok dakigu jaurtitzterakoan boomerang-a itzultzen dela.

Aborigenek badakite irribarrek boomerang itxura dutela.

Eta geroztik denok dakigu irri egitean, lehenago edo berandua-go, beti bueltatzen zaigula. Eta geroz eta handiago bada gure irribarrea, horrelaxe izango da jasotakoa.

Ongi izan eta ez ahaztu boomerang bat marrazten zure aurpegian.



1 TXINDOKIKO ITZALA

Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04
www.eltxuri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

3 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**



4 ELKAR argitaletxearen 2 opari



IRTEERA ARGIAK diskoa - Enaut Elorrieta.
TXORIA NINTZELA - Xabier Etxeberria.
elkarargitaletxea.eus / 943 31 03 01
parte hartzeko eskaintza zenbakia: **55**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.